

## ● MERKATUAREN SEGMENTAZIOA:

Merkatu mota bezeroen segmentazioen arabera **merkatu-nitxo** da, bezeroak zehatzak eta berezitutak direlako.

Bezero asko izango ditugu, adibidez; udaletxeetako kultura sailak, taberna eta jatetxeak, pertsona partikularrak...

Taldeko kideak Durangaldekoak garenez, sortutako app-a Durangon eta inguruko herrietan erabiliko da gehien bat, baina denbora pasa ahala gure zerbitzua zabaldu joango da, publizitatea eta ahoz-ahoko zabalkuntzari esker.

Guk sortutako app hau, bezeroen aldetik aztertuz gero, gehienbat **persona talde** batek erabiltzeko egin dago, hau da, pertsona talde batek kontratatuko ditu artistak gehienetan (udaletxeak, tabernak, ezkontzetan...). Horrez gain, banakoek ere erabil dezakete gure tresna, baina baliteke errentagarria ez gertatzea hauentzat, bakar bati artista bat kontratatzea garesti ateratzen lekiokelako.

